

GORDEXOLAKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDATZI ETATRAMITATZEAZ ARDURATUKO DEN ZERBITZURAKO HERRITARREN PARTAIDETZA- PROGRAMA

Gordexolan indarreko plangintza berrikusteko ireki den prozesua aukera ona da udalerriko etorkizunari ikuspegi zabaleko begirada batetik ekiteko. HAPOa hirigintza antolatzeko lanabes nagusia izanda, diseinuan hartu behar ditu barne fisikoak edota lurraldekoak baino ez diren gaiak ez ezik, bestelako gai zabalagoak ere. Izan ere, gizarterako eta horren eragileentzat baliagarria izan nahi duen hirigintzak herritarren beharrak eta helburuak islatu behar ditu bere erabakietan. Horrez gain, prozesu hau gizarte-mobilizaziorako tresna gisa abiarazten da, oinarri estrategiko horietan herritarren ekarpenak islatzeko xedez.

Proposamen tekniko honek osotasunean hartzen du prozesua, udalerriko herritarrekin eta gizarte-eragileekin batera Gordexolaren etorkizunerako eredu bat eraikitzeko helburua duen eginkizun-multzotako gisa.

Diagnostiko-fasean burutu beharreko zeregina funtsezkoa da Gordexolan eta horren lurralde-testuinguruan eragina duten dinamikak, joerak, plangintzak eta politikak ulertzeko. Alabaina, zeregin hori beti jarriko da proiektuaren azken xedearen menpean. Hori dela-eta, diagnostiko-lanaren oinarria izango da, zalantza barik, udalerraren testuingurua ulertzeko beharrezkoa den informazio guztiaren erabilera, talde teknikoaren, udal-taldearen eta partaidetzarako aurreikusitako mekanismoen aldetik. Ondorioz, diagnostiko-fasearen zeregina ez da izango orain beste erakunde batzuetan nahiz errealitatearen plangintza edota analisia egiteko bestelako estatistika edo tresnetan erabilgarri dagoen informazioa gaurkotu eta sistematizatzeko lana bakarrik; aitzitik, informazio hori prozesuan parte hartuko dutenentzat ulergarria eta esanguratsua izateko moduan interpretatu eta errepresentatzeko lana bereziki izango da (talde tekniko, udal-taldea, prozesuan inplikaturako eragileak, inplikaturak ez dauden herritarrek, bestelako erakundeak, eta abar).

Gauzak horrela, diagnostikoaren azken emaitzak (baina prozesuaren bestelako faseetan ere) modu zuzenean eta intuitiboan ikusaraziko dira; hau da, testuetatik eta tauletatik haratago joanda, irudien, grafikoaren eta kartografia berriaren bidez azalduko dira.

Proposamen tekniko hau udalerraren etorkizuna partaidetzaren bitartez planifikatzeko prozesu bateratu gisa ulertzen da. Bertan, garrantzi bera daukate, alde batetik, zehaztu beharreko oinarri estrategikoetatik etorriko diren proiektuetarako proposamen erakargarriak sortzeko gaitasunak eta, bestetik, oinarriko modu kolektiboan eraikitze aldera, udalerriko gizarte-kapitala mobilizatzeko gai den prozesuaren garapenak.

Hori guztia dela-eta, partaidetza-eredu integratu bat proposatzen dugu HAPOa lantzeko prozesuaren hasierako faseetatik, hau da, eredu dinamiko bat, fase bakoitzaren helburuetara bideratuta eta partaidetza-plangintza estrategikorako printzipio berritzaileetan oinarrituta dagoena.

Partaidetza Plan osoan zehar genero-printzipioak eta hizkuntza- zein ingurumen-irizpideak txeraturiko dira.

PARTAIDETZA-PROGRAMA, HAPOa, GORDEXOLA



AURRE-FASEA

Lehenengo, 2015/39 Legeak 133.artikuluaren arabera, dagokion herri kontsulta gauzatuko da.

1. FASEA: INFORMAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

Helburuak:

- ✔ HAPOa aurkeztea
- ✔ Partaidetza-prozesua aurkeztea
- ✔ Herritarren hiri-ikuspegia jasotzea
- ✔ Sozializatorako estrategia bat abiaraztea webgunearen/ Gizarte Sareen bitartez.

Ekintzak:

1. HAPO PARTAIDETZA-ATARIA WEBGUNEAN ABIARAZTEA

Behar-beharrezkoa da prozesuaren webgune bidezko jarraipen etengabea egitea. Horretarako, webgune batetik jakinaraziko dira Gordexolako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra diseinatzeko prozesuan gertatzen diren berritasun guztiak. Webgunea sortu eta prozesu osoan zehar mantzentzeko asmoa dago.

Esandako webguneak posta-kontu bat edota iradokizun-postontzi bat edukiko du, prozesuan zehar erabilgarri egongo dena herritarrek HAPOa dela-eta dituzten galdera guztiak biltzeko xedez.

2. GIZARTE-SAREAK

Gizarte Sareetan (Facebook/Twitter) profil bat sortuko da, sareen bitartez prozesuaren jarraipena eta dinamizazioa egiteko. Prozesuak iraun bitartean etengabe gaurkotuko da profila.

3. TELEFONO BIDEZKO INKESTAK EGITEA HERRITARREI

. HAPOak lurraldea diseinatzeaz gain, bertan bizi direnen etorkizuna ere antolatzen du. Hori dela-eta, telefonoz, azterlan kuantitatibo bat gauzatuko da herritarrek udalerrriaren beharrei buruz(ekipamenduak, zerbitzuak, baliabideak eta abar)duen pertzepzioa zein den jakite aldera.

Tresna horri esker, udalerrriari buruzko ikuspegi globala lortzen da, baita udalerriko bizilagunen lagin adierazgarri baten partaidetza ere.

Xede hori bete nahian, **telefono bidezko 270 inkesta** egitea proposatzen da. Udallerriaren errealitatea aintzat hartuta, sexu eta adinen arabera banatuko dira inkestak, lortutako lagina adierazgarria eta %95eko konfiantza-mailaduna nahiz %5eko errore-marjinaduna izan dadin.

4. HAPOa AURKEZTEKO TAILERRA

Helburu nagusia da **Gordexolako HAPOa berrikusteko prozesuaren barnean dauden pertsonen, sektoreei eta gizataldeei azaltzea** zer den HAPOa, zein helburu dituen, zein ondorio...

Halaber, tailerrean, dinamika berritzaileen bitartez herritarrek ondokoei buruz egindako ekarpenak jasoko dira:

- Ondoen baloratutako hiri/landa-espazioak
- Txartoen baloratutako hiri/landa-espazioak
- Hiri/landa-eremuko gaiak

Horretarako talde txikitik egingo da lan, eta **emozio-mapa bat gauzatuko da, diagnostiko gisa, ondoen eta txartoen baloratzen diren eremuak islatuko dituena.**

Informazio-fase honetan erabiliko den formatua 2 orduko bilera bat izango da, prozesuaren barruan sartuta dauden sektore eta profilei zuzenduta eta egokituta.

Bileraren xede-biztanleak dira:

- ➔ Elkarrekin batutako herritarrak
- ➔ Elkartu gabeko herritarrak
- ➔ Herrigunean bizi diren pertsonak
- ➔ Landa-nukleoetan bizi diren pertsonak
- ➔ Udallerrian jarduerak ekonomikoak burutzen duten pertsonak


Informazio-bilera egoki prestatze aldera, alde aurretik, hainbat eginkizun burutu beharko dira: erabilgarri dagoen informazio giltzarri guztia landu eta laburbiltzea, formatu grafikoetan nahiz idatzizkoetan, informazio hori herritarrek erraz ulertzeko moduko mintzairan ematea eta informazio giltzarria idaztea euskarri jakinetara moldatuta (Powerpoint motako aurkezpenak, partaidetza-ataria, udal-webgunea, laneko agiriak).

Informazio-bilerak **aurreikusitako partaidetza-prozesuaren berri emateaz gain**, aukera emango du parte hartu nahi duten pertsonak modu formalean gonbidatzeko, xede horretarako abiarazitako espazioetan partaide izan daitezen.

5. PARTAIDETZA BIDEZKO DIAGNOSTIKOAREN TXOSTENA

- ✔ Bildutako informazio guztia erabiliz txosten bat idatziko da eta bertan jasoko dira, alde batetik, galdera-sortaren emaitza estatistikoak eta, bestetik, herritarrek egindako diagnostikoa udalerriko hiri-sendotasunei eta -ahuleziei buruz (HAPOa aurkezteko tailerra).

www.tandemarquitectura.com

síguenos también en 



- ✔ Informazio hori baliagarri izango da idazlari-taldeak sortutako diagnostiko objetiboarekin kontrastatzeko.



2. FASEA: AURRERAKINA

Aurrerakin-fasea funtsezkoa da HAPOaren inguruko partaidetza-prozesuan, zeren eta une horretantxehelazten baitira herritarren ekarpenak, zeintzuk, geroago, HAPOan sar daitezkeen ala ez.

Helburuak:

1. Ekarpen-programa ireki bat egitea.
2. Elkarrekin batutako herritarren eta elkartu gabekoen ekarpenak biltzea.
3. Udalerrian jarduera ekonomikoa burutzen duten pertsonen ikuspegia jasotzea.
4. Herritarrekin espazio publikoaren gainean pedagogia-lanaburutzia.
5. Lurraldea eta duen aniztasuna ezagutzea erabakiak hartu ahal izateko.
6. Herrigunea eta landa-eremua erkatzea.

Ekintzak:

1. UDALERRIAN ESPEZIALIZATUTAKO GALDERA-SORTA BAT DISEINATU ETA POSTONTZIRATZEA

Irakurketa Errazeko¹ galdera-sorta bat diseinatuko da eta Gordexolako udalerriko etxebizitza guztietan postontziratuko da.

Galdera-sortan HAPOaren norainokoari buruzko informazioaz gain, galdera ireki bat ere azalduko da, azken horri erantzunez herritarrek jakinaraz ditzaten udalerrian, hirigintza-arloan, euren ustez dauden gabeziak eta beharrak.

2. HERRITARREN PROPOSAMENAK BILTZEA

4 asteko epealdian Gordexolako herritarrek parte hartzeko aukera izango dute alde aurretik postontziratatu diren galdera-sortak betetzeko eta, ondoren, emaneko. Horretarako ondorengo bideak erabili ahal izango dituzte:

1. **Udaletxea:** Etxeetara helarazitako liburuxka bete eta udaletxean ematea.
2. **Online:** HAPOari buruzko atarian atondutako inkesta online betetzea.
3. **Herritarren partaidetzarako postontziak:** Udaletxetik² urrunen dauden auzoetan kokatutako postontzietan sartzia.

¹ Irakurketa Erraza metodologia bat da, irakurtzeko edota ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak irakur eta uler ditzaten bereziki prestatutako irakurketa-materialak, ikusentzunezkoak eta multimedia-motakoak eskaintzen dituena.



4. Herritarren partaidetzarako karpak: **biegunetan**, zeintzuk ondoz ondokoak³ izango ez direnak, goizez (11:00-14:00) eta arratsaldez (16:00-19:00), parte hartzeko karpa bat kokatuko da, herritarrek, udalerriko espazio publikoari buruz, ekarpenak, gomendioak eta iradokizunak helaraz ditzaten.

Karpan **bi dinamizatzailerituko** dira honako zeregin hauek betetzen:

- ➔ Herritarrei informazioa ematea HAPOari eta Partaidetza Planari buruz.
- ➔ Diagnostiko-fasean lortutako emaitzak aurkeztea.
- ➔ Ekarpenak biltzea alde aurretik postontziratutako galdera-sortaren bitartez.
- ➔ Zalantzak argitzea.
- ➔ Hurrengo urratsak.

Hiriari buruzko pertzepzioaren mapa: halaber, Gordexolako mapa azalduko duen tamaina handiko panel bat diseinatuko da partaidetzarako karpan. Mapan herritarrek adierazi ahal izango dituzte:



Ondoen baloratutako hiri/landa-espazioak

Txartoen baloratutako hiri/landa-espazioak

Hiri/landa-eremuko gaiak

Honela egituratuko da partaidetza:

Nork hartu ahal izango du parte?

- a. Gordexolan errolatuta dauden pertsona guztiek, 16 urte baino gehiago izanez gero.
- b. Gordexolan helbide soziala duten erakundeek (*).
- c. Ordenamendu juridikoaren arabera, nortasun juridikoa duten elkarrekin, fundazioek, sindikatuek, enpresa-elkarrekin, lanbide-elkargoek, eskubide publikoko korporazioek edota bestelako erakundeek(*).

(*) : Azken bi kasuetan, eskatzaileak, Gordexolan errolatuta egoteaz gain, 16 urtez gorakoa izan beharko du.

² Gordexolaren hiri-errealitatea aintzat hartuta, zeinetan herrigunea eta zenbait landa-eremu bizikide baitira, gomendagarria da postontziak jartzea (alde aurretik zehaztutakoaldi baterako) herritarren ekarpenak jasotzeko. Postontziak kolore eta irudi korporatiboa edukiko lituzkete, herritarrek erraz ezagut eta identifika ditzaten. Partaidetza-prozesu jakin baten esparruan, kasu honetan HAPOaren gaineko prozesuaren esparruan, herritarren partaidetza gauzatu ahal deneko epean bakarrik kokatuko lirateke postontziak eta esandako prozesuari berariaz lotutako ekarpenak jasotzeko helburuz bakarrik. Hortaz, ez lirateke erabiliko herritarren kezak eta iradokizunak jasotzeko postontzi egonkor eta iraunkor gisa. Postontzien kostu ekonomikoa (gutxi gorabehera 300 euro/unitatea) ez dago jasota prozesu honetarako gorteko den aurrekontuaren barruan.

³ HAPOaren koordinazio-taldeak erabakiko ditu karpak kokatzeko lekua eta data. Horretarako, herritarren partaidetza handia bil dezaketen data bereziak aurreikusiko ditu. Era berean, taldeak kokaleku egokiak zehaztuko ditu, herrigunea zein landa-nukleoak aintzat hartuz.












3. GILTZARRI DIREN BIZILAGUN-GERUZEN PROPOSAMENAK BILTZEA

Ordu eta erdiko **4 tailer** egiteko proposamena mahaigaineratu da, honako gizatalde hauei zuzenduta:

- ✔ T1: 16 urtez beherakoak (ikasleak, hezkuntza-zentroetan)
- ✔ T2: Gazteak (gazteen elkarteak)
- ✔ T3: Elkarreetan batutako herritarrak (erretirodunen elkarteak, izaera askoko elkarteak).
- ✔ T4: Gordexolan jarduera ekonomikoa eta profesionala burutzen duten pertsonak.

Tailerretan, ondoko gaiak ardatz hartuta, dinamika berritzaileak erabiliz egingo da lan:

-  **Zerbitzu publikoak eta pribatuak:** hezkuntza-zentroak eta kirol-eremuak, osasuna, hiri-zerbitzuak, elkarretaratze/aisialdirako eremuak, lursailak eta espazioak, merkataritza...
-  **Komunikabide fisikoak:** sartzeko errepideak eta ingurabide-errepidea, barneko bideak, segurtasuna, garraio publikoa eta larrialdiak, seinaleztapena...
-  **Komunikabide digitalak:** interneta, telefonia mugikorra, zuntz optikoa...
-  **Eraikuntzak eta finkak :** gutxieneko azalera eraikigarriak, birgaitzea, irabazi asmorik gabeko eraikuntza...
-  **Edateko ura:** hornidura, biltegitratzea, ur-baliabideak...
-  **Lurraldeko nukleoak:** hirikoa eta landakoa, hiri- eta landa-nukleoen arteko muga, koherentzia eta berdintasuna, mugak, eremu babestuak...
-  **Industria eta lehenengo sektorea:** abeltzaintzako instalazioei buruzko araudia, lurzati osatugabea, landa-erabilerarako lurzatiak, enpresa berriak...
-  **Turismoa eta aisialdia:** landa-turismoa, lagapenen inbentarioa, aparkalekuak espazio publikoan, estetika-arauketa...
-  **Kontserbazioa eta garapena:** ingunearen babesa, bertan behera uztea eta leheneratzea, garapen-eredua, bizitza basatia...



4. PARTAIDETZA-PROZESUAREN EMAITZA-TXOSTENA IDAZTEA

- ☑ Txosten batean jasoko dira prozesuan zehar herritarrek eta giltzarri diren biztanle-geruzek helarazitako ekarpenak eta proposamenak.

5. HAPO WEBGUNEA GAURKOTZEA

- ☑ Aurrerakin-fasean zehar gaurkotu egingo da HAPOari buruzko webgunea. Bertan honakoak zehaztuko dira:
 - Parte hartzeko atondutako bideak.
 - Parte hartzeko egutegia.
 - Onlineko galdera-sorta, iradokizunak helarazteko.
 - Partaidetza-prozesuaren emaitzak.
 - Partaidetza birtualerako espazioa.



3. FASEA. IDAZKETA-HASIERAKO ONARPENA

Helburuak:

1. Herritarren ikuspegia kontrastatzea eta HAPOaren testuan sartzeko aukera baloratzea, irizpide juridikoak, ekonomikoak, inguruneari buruzkoak, eta abar aintzat hartuz.
2. Herritar guztiei irekita egongo den itzultze-saio bat egitea, aurrerakin-fasean bildutako informazioari buruz.

Ekintzak:

1. HERRITARRENTZAKO ITZULTZE-SAIOA

Herritar guztiei irekita egongo den itzultze-saio bat egingo da. Honakohauk ardatz hartuta egituratuko da saioa:

- ➔ Herritarren partaidetzaren emaitzak.
- ➔ Herritarren partaidetzaren ondorioz, gauzatzekoak diren ekintzak eta alde batera utzitakoak.
- ➔ Herritarren esku jarritako bideak, HAPOaren zirriborroa dela-eta, izaera indibidualeko alegazioak/ekarpenak bidera ditzaten.

2. EMAITZA-TXOSTENA

- ☑ Itzultze-saioan taldeka egindako lanaren emaitzak jasoko dituen txosten bat egingo da.

3. HAPO WEBGUNEA GAURKOTZEA

- ☑ Hasierako Onarpeneko Fasean zehar webgunea gaurkotu egingo da eta ondoko gaien buruzko informazioa gehituko da:
 - Prozesuaren emaitzak itzultzea.
 - Itzultze-saiorako deialdia.
 - Norberaren ekarpenak helarazteko espazioa.
 - Hurrengo urratsak HAPOari dagokionez.



4. HERRI KONTSULTA OSPATZEKO AUKERA

Eztabaida hiritar larriako sortuko balira HAPO an barne dauden gaiet buruz, 2/2016 Erakunde Lokaleko legeak 80. Artikulua betez, herri kontsulta ospatu ahal izango zen.

4.FASEA. BEHIN-BEHINEKO ONARPENA

Helburuak:

1. HAPOa, behin-behineko bertsioan, herritarrei aurkeztea.

Ekintzak:

1. HERRITARREI BEHIN-BEHINEKO AGIRIA ITZULTZEKO SAIOA

Herritarrei irekita egongo den itzultze-saio bat egingo da. Bertan, ondorengoak zehaztuko dira:

- HAPOa, behin-behineko bertsioan.
- Zalantzak, galderak eta eskeak.

2. HAPO WEBGUNEA GAURKOTZEA

- ☑ Behin-behineko onarpen-faseari dagokion informazioa gaineratzea.



5. FASEA. BEHIN BETIKO ONARPENA

Helburuak:

1. HAPOa, behin-betiko bertsioan, herritarrei aurkeztea.

Ekintzak:

1. HERRITARREI ITZULTZEA

- Behin betiko HAPOa jendurrean azaltzea.

2. HAPO WEBGUNEA GAURKOTZEA

- Behin betiko HAPOa, segimendu-adierazleak gehituta.

AURREIKUSITAKO KRONOGRAMA

| HIL. 1 | HIL. 2 | HIL. 3 | HIL. 4 | HIL. 5 | HIL. 6 | HIL. 7 | HIL. 8 | HIL. 9 | HIL. 10 | HIL. 11 | HIL. 12 | HIL. 13 | HIL. 14 | HIL. 15 | HIL. 16 | | |
|--------------------------|-----------|---------------------------------|-----------|-----------|-----------|---|-----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|-----------------|------------|--|--|
| DIAGNOSTIKOA | | | | | | AURRERAKINA | | | | | | | | | | | |
| Webgunea abiaraztea | | | | | | Webgunea gaurkotzea | | | | | | | | | | | |
| Giza Sareak dinamizatzea | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Inkestak | | | | | | Herritarren partaidetza-prozesua diseinatu eta abiaraztea | | | | | | | | | | | |
| | | Tailerra | | | | | | | | Tailerrak | | | | | | | |
| | | Diagnostikoari buruzko txostena | | | | | | | | | | | | Emitza-txostena | | | |

| HIL. 17 | HIL. 18 | HIL. 19 | HIL. 20 | HIL. 21 | HIL. 22 | HIL. 23 | HIL. 24 | HIL. 25 | HIL. 26 | HIL. 27 | HIL. 28 | HIL. 29 | HIL. 30 | HIL. 31 | HIL. 32 |
|--------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| IDAZKETA (HASIERAKO ONARPENA) | | | | | | | | | | | | | | | |
| Webgunea / Gizarte Sareak gaurkotzea | | | | | | | | | | | | | | | |

| HIL. 33 | HIL. 34 | HIL. 35 | HIL. 36 | HIL. 37 | HIL. 38 | HIL. 39 | HIL. 40 | HIL. 41 | HIL. 42 | HIL. 43 | HIL. 44 | HIL. 45 | HIL. 46 | HIL. 47 | HIL. 48 |
|-------------------------------|------------|------------|------------|------------|-------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|-----------------------|------------|------------|------------|------------|
| IDAZKETA (HASIERAKO ONARPENA) | | | | | BEHIN BEHINEKO ONARPENA | | | | | | BEHIN BETIKO ONARPENA | | | | |

| | | | | | |
|----------------|-----------------|--------------------------------------|----------------|--|--|
| | | | | | |
| Itzultze-saioa | | | Itzultze-saioa | | |
| | Emitza-txostena | Webgunea / Gizarte Sareak gaurkotzea | | | |

Getxon, 2018ko maiatzaren 24 an



Ixone Legarreta Iturregi COAVN 2760
Daniel Salvador Otaduy COAVN 2843

Tandem Arkitektura Hirigintza Bulegoa S.L.P.izenean :
Arkitektura Sozietatea, zbkº COAVN 950507